

# NAIDEREN ARGITALPEN BERRIA: "INDUSTRIA, GURE SISTEMA ERAGILEA"

*Posted on 27/03/2026 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [La industria como base](#), [Naider Lantaldea](#), [Revista técnica](#)

NAIDERen udaberriko argitalpena irakurgai dago jada. "Industria, gure sistema eragilea" izenburupean, sistema produktiboaren eraldaketa aztertzen dugu trantsizio ekologikoaren, aldaketa teknologikoaren eta dinamika geopolitiko berrien testuinguruan. Oinarrizko galdera: zer bereizten ditu aurrera egiten duten lurraldeak atzerago geratzen direnetatik?

Erantzun bat eraikitzeko, ale honek balio-kateak lurraldeko ekonomia aktibatzekeo tresna gisa jorratzen ditu, industria-poligonoak agentzia handiko espazioetan bihurtzeko esparru bat proposatzen du, Industrial Accelerator Act europako industria-subiranotasunerako palanka gisa aztertzen du, eta ondare eraikia hiri- eta ekoizpen-dinamika berrietan berraktibatzekeo gakoak eskaintzen ditu.

Horri guztiari trantsizio-gakoen hautaketa bat eta NAIDERek azken hiruhilekoan garatutako proiektuen eta ekimenen errepasso bat gehitzen zaizkio.

